

## XEDAPEN OROKORRAK

### OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

# 174

*AGINDUA, 2011ko abenduaren 22koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Osasun eta Kontsumo Saileko eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren datu pertsonalen fitxategiak arautzen dituena.*

Osasuneko sailburuaren 2005eko ekainaren 1eko Aginduak Osasun Sailak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak arautu zituen, Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat eginez.

Agindu hori argitaratu zenetik, Osasun eta Kontsumo Sailaren ardurapeko fitxategiak berrikusteko beharra eragin dute zenbait faktorek, fitxategiok gertatu diren aldaketetara doitu daitezten. 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan, Legea garatzeko Araudia onartzen duenean, ezarritako berrikuntzek, Sailak hartu dituen eskumen berriek eragindako berrantolaketak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren sorrerak eta azken urteetan Osasun Sistema Nazionalean sortutako informazio-sistemen eraginez datu pertsonalen fitxategi berriak sortzeko beharrak agindu berri bat argitaratzea eskatzen dute, herritarrek jakin dezaten Sailak eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak haien datu pertsonalekin zer egiten duten.

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikulua, 1. atalean, xedatzen du Administrazio Publikoetako fitxategien sorkuntza, aldaketa edo deuseztapena Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion egunkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokorraren bidez baizik ezin daitekeela egin, eta artikuluko bereko 3. atalean adierazten da fitxategiak deuseztatzeke ematen diren xedapenetan berauen helburua ezarri behar dela edo, dagokion kasuan, suntsipenerako hartzen diren neurriak zehaztu.

2004ko otsailaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legeak, Jabetza Publikoko Datu Pertsonalen Fitxategiei eta Datuen Babeserako Euskal Agentziari buruzkoak, bere 4. artikuluan ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioako Fitxategien sorkuntza, aldaketa zein deuseztapena fitxategi hori adskribitua dagoen saileko titularraren aginduz egin behar da, bertan indarrean dagoen legeriak exijitzen dituen zehaztapan guztiek agertu beharko dute, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua izan behar du.

Fitxategi pertsonal guztiak xedapen bakarrean jasota egon daitezten, I. eta II. eranskinetan daude jasota Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ardurapean sortzen diren fitxategi pertsonal guztiak. III. eranskinean, berriz, lehendik zeuden fitxategietatik ezabatuko direnak azaltzen dira, eta bakoitzarekin zer egingo den zehazten da.

Azaldu den guztiaren ondorioz,

## XEDATU DUT:

## 1. artikulua.– Helburua.

1.– Akordio honen helburua da Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak kudeatzen dituzten datu pertsonalen fitxategiak arautzea.

2.– Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.2 artikuluekin bat eginez –artikulu hori 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54.1 artikulua garatzen du, eta azken artikulu horren bidez onartzen da datu pertsonalak babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia–, fitxategia edo tratamendua identifikatzea, honako hauek adierazita: izena, fitxategiarentzat/tratamenduarentzat aurreikusitako helburuak eta erabilerak, datuen jatorria (datu pertsonalak eskuratu behar zaizkion pertsonaldea adierazita), fitxategiaren oinarriko egitura (identifikatzeko datuak zehatz deskribatuta, eta, dagokionean, bereziki babestutako datuak eta fitxategian sartutako datu pertsonalen gainerako kategoriak eta haiek tratatzeko erabilitako sistema adierazita), datuak komunikatzeko aurreikusitako moduak (dagokionean, datu horien hartzaileak eta hartzaile-kategoriak adierazita), hirugarren herrialdeetara aurreikusitako datu-transferentziak (dagokionean, datuen helburu diren herrialdeak adierazita), fitxategiaren organo arduradunak, datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil daitezkeen zerbitzuak edo unitateak, eta fitxategi bakoitzarentzat eskatuko den segurtasun-maila (oinarrikoa, ertaina edo handia izango da, Agindu honen I. eta II. eranskinetan adierazitakoaren arabera).

## 2. artikulua.– Fitxategien sorkuntza eta ezabapena.

Agindu honetako I. eta II. eranskinetan, hurrenez hurren, aipatzen diren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortu eta III. eranskinean adierazitakoak ezabatzen dira.

## 3. artikulua.– Fitxategien helburua.

Agindu honetan araututako fitxategiak, fitxategi bakoitzari dagokion eranskinetan adierazitako helburuetarako izateaz gain, estatistikak egiteko ere erabiliko dira. II. eranskinean jasotakoek, gainera, osasun publikoaren helburuetarako, azterketa epidemiologikorako eta osasun-arloko ikerketarako ere erabiliko dira. Datuak tratatzeko Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan xedatutakoa hartuko da kontuan.

## 4. artikulua.– Datuen lagapena.

1.– Agindu honen I. eta II. eranskinetan fitxategi bakoitzerako aurreikusten diren datuen lagapenak gorabehera, fitxategian barne hartutako datuen lagapena egin ahal izango da, Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren eremuan, eskumen berdinak eta antzeko gaiei buruzkoak gauzatzeko.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste administrazio publiko batzuetako organo eta estatistika-zerbitzuei utzi ahal izango zaizkie, kontuan edukiz 1986ko apirilaren 23ko 4/1986 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoan eta 1989ko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean, Funtzio Estatistikoari buruzkoan, ezartzen dena.

3.– Arlo sanitarioari dagokionez, I. eranskinean sartutako fitxategiek dituzten datuak beste administrazio sanitario batzuei eman ahal izango zaizkie, hauetan adierazitako zehaztapenen arabera: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege

Organikoa, 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua –1999/15 Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duena– eta araudi sanitarioa osatzen duten 1986ko apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoa, Osasun Publikoko gaietarako Neurri Bereziak, 1986ko apirilaren 25eko Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorra, 2003ko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzkoa, 2002ko azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legea, pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoari buruzko eskubideak eta obligazioak erregulatzen dituena, 1987ko ekainaren 26ko 8/1987 Legea, Euskadiko Ordenazio Sanitarioari buruzkoa, eta EAEko gainerako araudiak.

4.– Osasun eta Kontsumo Saileko Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordetza eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak, beren eskuduntzako arloan, itundu ahal izango dituzte datuen tratamendurako lankidetzak-hitzarmenak, 15/1999 Lege Organikoan, eta hura garatzeko araudian, datuen jabeen berme eta babesari buruz agintzen dena zehazki betez.

5. artikulua.– Segurtasun-neurriak eta kudeaketa.

Fitxategi bakoitzaren organo arduradunen titularrek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte fitxategi horiek sortuak izan ziren helburuetarako erabiliko direla bermatzeko eta izaera pertsonaleko datuen segurtasunerako, horrela eragotziz, batetik, berauen aldaketa, galera eta baimendu gabeko tratamendu edo eskuratzea, eta bestetik, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta berau garatzeko arauetan aitortutako gainerako bermeak betebeharrak eta eskubideak aintzat har daitezela.

6. artikulua.– Datuen tratamenduko zerbitzua ematea.

Datu-tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideak kontuan hartu behar dituzte Osasun eta Kontsumo Sailaren eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kontura izaera pertsonaleko datuen tratamenduko zerbitzua ematen dutenek, eta jarraibide horien arabera jardun behar dute. Eta hala izango dela jasoko da zerbitzua eskaintzeko egiten den kontratuan. Beraz, alde batetik, datuak ezin izango dira beste ezertarako aplikatu edo erabili, eta bestetik, ezin izango zaio inori haien berri eman, nahiz eta datuak gordetzeko asmoarekin izan; izan ere, hala agintzen dute 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua eta hura garatzeko araudiak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da, agindu hau indarrean jartzean, Osasun Sailburuaren 2005eko ekainaren 1eko Agindua, Osasun Saileko datu pertsonalen fitxategiak erregulatzen dituena, baita agindu horri kontra egiten dion maila bereko edo beheagoko beste edozein xedapen ere.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa.– Osasun eta Kontsumo Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Agentziari helaraziko dio Agindu honen kopia bat, Osasun eta Kontsumo Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategietako Datuen Babeseko Erregistroan inskriba dezan (xedapen honen I. eta II. eranskinetan jasoak dauden datuak).

Bigarrena.–Agindu hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,  
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.

## I. ERANSKINA

## OSASUN ETA KONTSUMO SAILEKO FITXATEGIAK SORTZEA

Jarraian datozen datu pertsonalen fitxategiak sortzen dira, Osasun eta Kontsumo Sailak kudeatuak, eta fitxategiaren arduradun hauen mendekoak izango dira:

1.– Osasun Publikoko Zuzendaritza.

1.1.– Osasunerako sustapena eta hezkuntza.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Aholku-, prestakuntza- eta babes-eskabideen kudeaketa, osasunerako sustapen eta hezkuntzaren arloan; horrez gain, materiala eta dokumentazioa maileguan uztea. Eskabideen eta premien analisia. Zerbitzuaren ebaluazioa.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Zerbitzua eskatzen duten interesatuak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuengandik, entitate pribatuetatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik eta udaletatik jasotzen dira, formulario, telefono, fax eta transmisio elektronikoaren bitartez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, helbidea / helbide elektronikoa (pertsonala, lanekoa), telefono-zenbakia (pertsonala, lanekoa).

Datu akademikoak eta profesionalak: lanbidea, trebakuntza-zentroa, trebakuntza-jardueraren mota.

Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: lan-zentroa.

Transakzioei buruzko datuak: kaltetuak jasotako ondasunak eta zerbitzuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Detektatu gabeak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubidez baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

1.2.– Ingurumen Osasunaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Ingurumen-osasuneko lan-arloaren kudeaketa, pertsonen eta entitateen datu identifikatzaileak eta ekintza-programetan bildutako kontrol- eta jarraipen-datuak: osasun-zentroetako hondakinak kudeatzeko planak, kontsumoko urak, jostaketako urak, legionellari dagozkion arrisku-instalazioak, enpresen eta zerbitzu bioziden erregistroa, salaketak eta alertak, entitateen eta pertsonen erregistroak (baldin eta baimena badute araudi sektorialek exijitzen dituzten gaitasun-ikastaroak emateko), prestakuntza-ikastaro horiek egin dituzten pertsonen erregistroak, eta departamentuen arteko lan-batzordeetan parte hartu dutenak.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Instalazio edo entitateen titularrak edo arduradunak eta araudi sektorialek exijitzen dituzten gaitasun-ikastaroak egin dituzten pertsonak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuengandik, administrazio publikoetatik eta ikastaroak ematen dituzten trebakuntza-zentroetatik jasotzen dira, formulario eta inkesten bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, NANA, helbidea, telefono-zenbakia.

Informazio komertzialari buruzko datuak: jarduerak eta negozioak, jarduera-mota, jarduera jakin batzuk garatzeko gaikuntza.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Administrazio publikoei (Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioari, eta tokiko eta lurraldeko administrazioei).

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea, 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Nafarroa hiribidea, 4.

20013 Donostia-San Sebastián.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

1.3.– Laguntzak jasotzea dagokien entitateak.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako, tokiko erakundeentzako eta irakaskuntza-zentroentzako laguntza ekonomikoen esleipena kudeatzea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Irabazi-asmorik gabeko entitateen, tokiko entitateen eta irakaskuntza-zentroen ordezkariak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuengandik jasotzen dira, formularioen eta transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: erakundearen ordezkariaren izena eta abizenak, erakundearen helbidea, erakundearen izena.

Datu ekonomiko-finantzarioak: laguntzak, laguntzen zenbatekoa, laguntzen helburua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Detektatu gabeak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

1.4.– Elikapen Sanitarioaren Kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Elikadura-osasunaren kudeaketa eta osasun publikoaren babesa. Instalazioen eta elikadura- eta ostalaritza-establezimenduetako manipulazio praktiken egoera higieniko-sanitarioei jarraipena egitea. Baimenak ematea. Autokontrolak egiteko obligazioa duten establezimenduen dokumentu-tramitea kudeatzea. Hiltegietan animaliak hiltzeari jarraipena egitea, eta egindako dekomisoak zehaztea. Animalien bizkarrezurra erauzteko baimena duten establezimenduak kontrolatzea. Albaitaritza-hondakinen lagin-hartzearen kudeaketa.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Elikadura-establezimenduen, abeltzaintzako ustategien eta Arrisku Material Espezifikoa erauzteko baimena duten zentron titularrak edo arduradunak, baita janarien manipulatzeari buruzko ikastaroak emateko baimena duten irakasleak ere.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuarengandik, ikuskatzaileengandik, hiltegietatik eta udal batzuetatik jasotzen dira, formulario, transmisio elektronikoa, dokumentuen aurkezpen eta ikuskapen-akten bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, helbidea, telefono-zenbakia eta NANA.

Datu akademikoak eta profesionalak: titulazioa (janariak manipulatzeko gaiei buruzko trebatzaileena).

Informazio komertzialari buruzko datuak: jarduerak eta negozioak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.



## f) Datuen lagapenak:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunaren Ministerioari eta osasunaren arloan eskumena daukaten beste erakunde publiko batzuei, foru-aldundiei eta udalei.

## g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

## h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea, 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Nafarroa hiribidea, 4.

20013 Donostia-San Sebastián.

## j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

1.5.– Osasun Publikoari buruzko Ikerkuntza Lanak.

## a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Istripuzko lesioen prebentzioa eta osasunaren sustapeneko beste alderdi batzuk, osasun-zentroetako profesionalen jardueraren bitartez.

## b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Osasun-zentroetara joaten diren pertsonak.

## c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuengandik jasotzen dira, pertsonal sanitarioak eginiko elkarrizketen edo inkesten bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, helbidea.

Inguruabar sozialei buruzko datuak: zaletasunak eta bizimoduak, ohiturak, klase soziala.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Detektatu gabeak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila ertaina.

1.6.– Erbetefi (Erkidegoko Beharrian Terapeutikoen Fitxategia).

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Pertsona fisikoek beren patologia gainditzeko laguntza ekonomikoen esleipena kudeatzea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Laguntza-programan interesaturik dauden pertsonak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuarengandik edo haren tutorearengandik jasotzen dira, formularioen bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: interesdunaren izena eta abizenak, tutorearen izena eta abizenak.

Datu ekonomiko-finantzarioak: laguntzak, laguntzen zenbatekoa, batzorde laguntza-emailearen bileren aktak.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Detektatu gabeak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

1.7.– Epidemiologia.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Osasunaren babeserako neurri indibidual eta kolektiboak ezartzea. EAEn zenbait gaixotasunek daukaten intzidentzia ezagutzea eta zirkulazio-istripuak prebenitzeko kanpainak eta estudioak egitea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko ospitale-zentro publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailleak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak interesatuarengandik, mediku eta laborategi deklaratzailleengandik eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik jasotzen dira formularioen, transmisio elektronikoaren eta ikuskapen-akten bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: pazientearen izena eta abizenak, NANA, helbidea, telefono-zenbakia, medikuaren izena eta abizenak.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua, adina, familiaren datuak, nazionalitatea, ezaugarri fisikoak, immigrantea den edo ez, etorrera-data.

Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: lanpostua.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioari, beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-sailei eta osasunaren arloan eskumena daukaten beste erakunde publiko batzuei.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Santiago hiribidea, 11.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Osasun Publikoko Zuzendariordetza.

Nafarroa hiribidea, 4.

20013 Donostia.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

1.8.– Populazioaren erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren interesdunekin komunikatzea, Osasun eta Kontsumo Sailaren eskumenetatik eratorritako harreman juridiko-administratiboei dagokienez.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Dagokien udal-erroldean agertzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak Eustatetik eta INEtik jasotzen dira, transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, helbidea.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubidez baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarritzko maila.

1.9.– Jaioberriak.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

EAEko jaioberri guztien zerrenda jasotzea, datu-base bat egiteko osasun-plangintzarako, zaintza epidemiologikorako eta osasun publikoko programetarako.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko zentro ospitalario publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailerak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik jasotzen dira, inkesta edo elkarrizketen, egiten diren proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), beste erkidego batzuetako osasun-sailei, osasunaren arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

1.10.– Jaioberritako baheketaren eta sortzetiko malformazioen erregistroa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

EAEko jaioberriei buruzko informazioa jasotzea, gaixotasun endokrino-metabolikoen edo bestelako gaixotasunen jaioberritako baheketaren kontrola ezartzeko, eta etorkizunean ager litezkeen patologiak prebenitzeko. Sortzetiko anomaliaren bat duten jaioberrien zerrenda jasotzea, bizitzako lehenbiziko urtean kasu horien segimendua egin ahal izateko. Jaiotza eta edoskitzaroari buruzko prebentzio sanitarioko kanpainak egitea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko zentro ospitalario publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailleak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik jasotzen dira, inkesta edo elkarrizketen, egiten diren proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Estatistikak egiteko ardura daukaten zerbitzu publikoei (Eustat), beste erkidego batzuetako osasun-sailei, osasunaren arloan eskumena daukaten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

1.11.– Txertaketei buruzko informazio-sistema.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Immunizazioaren bidez esku hartzeko modukoak diren gaixotasun kutsakorrek eta bestelako prozesu akutu edo kronikoak kontrolatzeko aukera izatea. EAEko txertaketa-programen segimendua eta ebaluazioa izatea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko zentro ospitalario eta osasun-zerbitzu publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailerak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuok osasun-zentroetatik, kontsulta pribatuetatik edo lan-mutualitateetatik datoz, idatzizko dokumentuen edo aplikazio informatiko jakin baten bidezko atzitze informatikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-sailei, eta osasun-gaietan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

1.12.– Informazio Mikrobiologikoko Sistema.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Gaixotasun kutsakorren kontrol epidemiologikoa egiteko aukera izatea EAEn, EAEko mikrobiologia-zerbitzuetako informazioan oinarrituta.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Lehen mailako arretako, arreta espezializatuko zentro ospitalario eta osasun-zerbitzu publiko zein pribatuetako pazienteak eta mediku deklaratzailerak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

EAEko osasun-zentro publiko eta pribatuetako mikrobiologia-zerbitzuetatik datoz datuak.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, posta-helbidea, IKK eta OTI.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, sexua.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.



## f) Datuen lagapenak:

Beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-sailei, eta osasun-gaietan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

## g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

## h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

## j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

1.13.– Laborategien kudeaketa.

## a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Jarduera analitikoa eta laginen egoera kudeatzea.

## b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zentroetan jarduera analitikoaren menpe dauden pertsonak, eta dopin-probak egiten zaizkien entitate eta enpresetako pertsonak.

## c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak ospitaleetatik eta osasun mentaleko zentroetatik lortzen dira, datuen transmisio elektronikoen, egiten diren proben eta jasotzen den dokumentazioaren bidez.

## d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: izena eta abizenak, NANA, telefono-zenbakia, helbidea.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: adina, sexua, ezaugarri fisikoak, familia-datuak.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

## e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

## f) Datuen lagapenak:

Detektatu gabeak.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

2.– Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioaren Zuzendaritza.

2.1.– Osasun Txartel Indibiduala.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Euskadiko Osasun Sistemak babesten dituen Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek arreta sanitariorako daukaten eskubidea egiaztatzea.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren estaldurarako eskubidea duten pertsonak eta EAEko sare publikoko medikuak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak hauengandik eskuratzen dira: interesatuarengandik, Justizia Ministeriotik, GSDOtik, Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionaleko Mutualitateetatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik, ziurtapen elektronikoko zerbitzuen prestatzaileengandik, INEtik, Eustatetik, foru-aldundietatik eta udaletatik, formulario eta transmisio elektronikoen bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: pazientearen NANA, GS-zenbakia, izena eta abizenak, esleitutako medikuaren izena eta abizenak eta mediku hautatuaren izena, helbidea, telefonoa, sinadura elektronikoa, OTI-zenbakia eta iraungitze-data, Osabide kodea.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, jaiotza-tokia (probintzia), familiaren datuak, sexua, adina, erabiltzaile-mota (Titularra / Onuraduna).

Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: medikuak lan egiten duen osasun-zentroa, aktiboa / pentsioduna, lan egiten duen sektore ekonomikoa.

Datu ekonomikoa eta finantzarioak: diru-sarrerak (osasun-laguntzaren unibertsalizazioa), lan-arriskuen aseguru-erakundea.

Transakzioei buruzko datuak: aseguru-erregimena, Osasun Sistemaren alta ematearen arrazoia.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari, Osasun, Gizarte Politika eta Kontsumoko Ministerioari eta Gizarte Segurantzako Erakunde kudeatzaile eta laguntzaileei, Farmazia Bulegoei eta ziurtapen elektronikoko zerbitzuen emaileei.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Olagibel kalea, 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Antso Jakitunaren kalea, 35.

20010 Donostia-San Sebastián.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Oinarrizko maila.

2.2.– Aseguramendu-sistema integratua.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Kudeaketa sanitarioa eta azterketak eta ikerkuntza, Euskadiko Osasun Sistemak babesten duen Euskal Autonomia Erkidegoko populazioari begira.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren estaldurarako eskubidea daukaten pertsonak eta EAEko sare publikoko medikuak.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak hauengandik eskuratzen dira: interesatuarengandik, Justiziako Ministeriotik, GSDOtik, Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionaleko Mutualitateetatik, Osakidetza-

Euskal osasun zerbitzutik, ziurtapen elektronikoko zerbitzuen prestatzaileengandik, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistrotik, INEtik, Eustatetik, foru-aldundietatik eta udaletatik, formulario eta transmisio elektronikoen bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: Pazientearen NANA, GS-zenbakia, izena eta abizenak, esleitutako medikuaren izena eta abizenak eta mediku hautatuaren izena, helbidea, telefonoa, sinadura elektronikoa, OTI-zenbakia eta iraungitze-data, Osabide kodea.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: jaiotza-data, jaiotza-tokia (probintzia), familiaren datuak, sexua, adina, erabiltzaile-mota (Titularra / Onuraduna).

Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: medikuak lan egiten duen osasun-zentroa, aktiboa / pentsioduna, lan egiten duen sektore ekonomikoa.

Datu ekonomikoak eta finantzarioak: diru-sarrerak (osasun-laguntzaren unibertsalizazioa), lan-arriskuen aseguru-erakundea.

Transakzioei buruzko datuak: aseguru-erregimena, Osasun Sistemari alta ematearen arrazoia.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubidez baliatzeko zerbitzua:

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Olagibel kalea, 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Antso Jakitunaren kalea, 35.

20010 Donostia-San Sebastián.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

2.3.– Kontratazio Sanitarioa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta hitzarturiko arreta-zentro eta enpresen jardueraren eta finantzaketaren kontrola. Arreta sanitarioko bideratzeen kudeaketa, barne hartzen delarik garapen bidean diren herrialdeetako haurren arreta sanitarioa.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Euskadiko Osasun Sistema Publikoak asistituriko populazioa.

c) Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Datuak hauengandik eskuratzen dira: interesatuarengandik, GKEetatik, arreta sanitarioko enpresa eta zentroetatik eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzutik, formulario, errezeta eta transmisio elektronikoaren bidez.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Datu identifikatzaileak: pazientearen mutualitatearen/gizarte-segurantzaren zk., izena eta abizenak, NANA, helbidea eta telefono-zenbakia; medikuaren izen-abizenak, kontzertatutako zentroaren izena, Osasun Txartel Indibidualaren zk., historia klinikoaren zk., elkargokide-zenbakia eta agindu-zentroa.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: adina, sexua, jaiotza-data, jaiotza-tokia, nazionalitatea.

Enpleguaren xehetasunei buruzko datuak: medikuak lan egiten duen zentroa eta zerbitzua.

Datu ekonomiko-finantzarioak: bankuko datuak, kontu-zk.

Transakzioei buruzko datuak: kaltetuak jasotako ondasunak eta zerbitzuak.

Bereziki babestutako datuak: osasun-datuak.

e) Tratamendu-sistema:

Automatizatua eta ez-automatizatua.

f) Datuen lagapenak:

Osasun-zentro pribatuei eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari.

g) Datuen nazioarteko transferentziak:

Detektatu gabeak.

h) Fitxategiaren organo arduraduna:

Osasun Sailburuordetzako Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza.

i) Datuetara heltzeko nahiz datuak zuzentzeko, deuseztatzeko zein aurka egiteko eskubideaz baliatzeko zerbitzua:

Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioaren Zuzendaritza.

Donostia kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava).

Arabako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Olagibel kalea, 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Bizkaiko Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Errekalde zumardia, 39 A.

48008 Bilbao.

Gipuzkoako Osasuneko eta Kontsumoko Lurralde Zuzendaritza.

Antso Jakitunaren kalea, 35.

20010 Donostia-San Sebastián.

j) Segurtasun-neurriak direla-eta eskatu beharreko maila:

Maila altua.

2.4.– Ezintasun iragankorraren kudeaketa.

a) Helburua eta aurreikusten diren erabilerak:

Gertakizun arruntagatik sortu diren ezintasun iragankorren erregistro, kudeaketa, ebaluazio eta kontrola.

b) Eragiten dien pertsona nahiz kolektiboak:

Gizarte Segurantzaren Sistemako estaldura edukirik, prestazio sanitarioa jasotzeko eskubidea daukan EAE-ko populazioa.

